

Deba Garaiko ondarea babesteko elkartea sortu da

H.G. / DONOSTIA

Kapirixo Deba Garaiko (Gizpuzkoa) ondare kulturala babesteko taldea duela zenbait hilabete sortu zen, Deba Garaiko herrietako pertsona multzo batek inguruko herriei zegozkien ondare kulturala babesteko beharra ikusirik. Atzo bere aurkezpen ofiziala egin zuen taldeak, gai honetan aritu nahiko luketen Deba Garaiko herritar oro biltzeko.

Anaje Narbaiza Kapirixo erakundearen kidearen esanetan «artetik hasita arkitektura hunkitzen duenerainoko arloa» dago beraien asmoen artean. Baina lehentasuna informatzeari ematen diote: «Gure lehen helburua jendea informatzean datza. Deba Garaiko jendeak, beste herrialdeetan bezalaxe, ez du ezagutzen daukan ondarearen aberastasuna eta guk gai horretan daukagun jakitatea besteekin banatu nahiko genuke. Kapirixo instituzio zein gainerantzeko eremuetan orain arte ondare babespen mailan egon den hutsune handia betetzera dator, ahal izan den neurrian egon den instituzio zein gainerantzeko aldetiko».

Oraindik erakundearen nondik norakoak zehaztuko dituzten estatuen proiektua besterik onarturik ez badaukate ere, hainbat xede eta asmo dauzkate buruan. «Espero dugu herri guztietako jendeak laguntza ematea, bakoitzak ongi ezagutzen duen esparruaren berri eman dezan».

Une honetan hainbat ideia dauzka Kapirixok eskuartean, horietarik bat Oñatiko zubiarena. «Oñatiko zubia bezala beste hainbat gauza dago egiteke, gure ondarea erabat zabala baita».

Ordainketa delegatuak EAEn sortitzakeen arazo beldur da LAB

Irakaskuntza pribatua eta ikastoletan jarri nahi dute indarrean

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak irakaskuntza pribatua eta ikastoletan ezarri nahi duen ordainketa delegatua «txapuza» izango den beldur agertu da LAB sindikatua. Langileen artean sortuko diren ezberdintasunak salatu ditu bereziki.

DONOSTIA

Administrazioarekin eta patronalarekin hiru bilera egin dituzte dagoeneko UTEPE, ELA eta LAB sindikatuek, irailaren 8an, 20an eta 23an, baina horietan ez da apenas aurrerapausorik izan, LABek emandako infor-

mazioaren arabera.

Oraindik orain izandako ikasturtearen aurkezpena egiteko ekitaldian Fernando Buesa Hezkuntza sailburuak berak nabarmendu zuen Administrazioaren helburua ordainketa delegatua datorren urtarrilaren hasieratik aurrera indarrean jartzea izango dela. Jaurlaritzak, hori horrela, beren asmoak bildu dituen dekretora egin dauka eta ezaguna dute patronal eta sindikatuek. Nahikoa harrera txarra egin diote, ordea, LABek jakinarazi duenez.

Sindikatu horren iritziz, ordainketa delegatua «dekretora azaltzen den eran ezartzen bada, txapuza izango da eta haserre baino ez du sortuko». Ordainketa era berriak lan baldintzak ez dituela hobetuko nabarmendu du

LAB sindikatuak, eta aitzitik, «nahasketa eta tirabirak» ekarriko dituela.

Irakaskuntza publikoarekin homologatzeko baldintzak bermatzea da garrantzitsua LABen iritziz, eta zenbat kobratuko duten, «ez nola kobratuko duten».

Baina LABen hitzetan, «onartezinak» langileen artean «sortu nahi diren ezberdintasunak» dira. Administrazioak ordainketa delegatua ezartzeko egin duen dekretorekin arabera, ordainketa horretatik kanpo geratuko dira ikastetxeetako administrazio eta zerbitzuak langileak, kontzertu osoa ez duten geletako irakasleak, zenbait irakasle ordeko, eta kontzertatuak izan arren ezarritako *ratio*-etatik gora dauden langile finkoak.

OSKAR MONTERO



Navarreriako Sanferminak euripean

Atzo eguerdian Sanfermin Txikiei hasiera eman zien suziria euripean bota behar izan zuten, baina eguraldi kaskarrak ez zuen inolaz ere txupinazoa goibeldu. Ohi denez, jendetza handia bildu zen Navarrerria kalean Jesus Andalo Soto 11 urteko alkate txikiak «Gora Aldapako San Fermin» zer-nola oihukatzen zuen aditzeko. Arratsaldean entzierro txikia izan zuten haurrek. Zezenplazan egitekoa zen 'Boleroaren antologia', berriz, atzeratu egin behar izan dute eguraldi txarraren ondorioz. Jakina denez, gaur eta bihar entzierroak eta zezenketak izango dira Iruñean, Udalak antolatuta.

LABURREAN

OIAK zaintzeko osasun programa urrian

Signal enpresa pribatuak babestuta eta Nazioarteko Hertz Federakundeak eta Bizkaiko Odontologo eta Estomatologo Elkargo Ofizialak garatuta, oien osasuna hobetzea helburu duen programa jarriko dute martxan Bizkaia eta Araban datorren urria osoan. Hirugarren urtez martxan jarriko duten programa honetan parte hartuko duten dentistek oien azterketa, diagnostika eta beharrezko tratamendua egingo dute dohainik.

BIZKAIA 500 untxi eta erbi askatu dituzte

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak 500 untxi eta erbi askatu zituen atzo goizean Lekeitioko Otoio eta Zierbenako Serantes eta Kastaños mendietan eta Orduñako Hafade zelaian. Ekintza hau urtero Diputazioak egiten duen animalien birpopulaketa kanpainaren barruan kokatzen da.

PARLAMENTUKO lehendakariarekin bildu dira antimilitaristak

Kakitzat, KEM eta Intsumisoen Senideen Elkarteak Javier Otano Nafarroako Parlamentuko lehendakariarekin bildu ziren atzo, ganbarak onartutako akordioek ez dutelako aurrera egin. Epaketak gelditzea eskatu zuten berriro, eta egungo presoen egoeraz ere mintzatu ziren. Otanok akordio hauek Madrilen planteatzeko konpromezua hartu zuen.



**GURUTZE
IANTZI**

Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak
borroka honetan iraungo duten
zuhaitz adaxka gazteak

**HERNANI ALDEKO
HERRI BATASUNA**



**GURUTZE
IANTZI**

Ni hilen naiz
nire arima galduko da
baina nire aitaren etxeak
iraunen du zutik

HERRI BATASUNA

ESKELAK

Arratsaldeko 7ak
arte hartzen dira

(943) 46 90 22